

BLACKBERRY SOFTWAREAREN TZAKO FACEBOOK
BALDINTZA GEHIGARRIAK

Research In Motion Limited-ek edo bere kideek (“RIM”) atsegin handiz jartzen du doan zure eskura, norbanako gisa, edo, Bezeroaren softwarea (jarraian definitu bezala) enpresa edo erakunde baten izenean eskuratzeko baimena baduzu, orduan, lan egiten duzun erakundearentzako (bi kasuetan, “Zu”), BlackBerry softwarearentzako Facebook (“Bezeroaren softwarea”). Honen bidez, beraz, Facebook Inc. enpresak (“Facebook”) eskainitako zenbait eskuko produktu sare sozialaren zerbitzura sartzeko eta berori erabiltzeko eskubidea ematen dizu (“Eskuratutako zerbitzua”). RIMek atseginaz jartzen du Bezeroaren softwarea eskuragarri Zuretzat, baina horretarako behar-beharrezkoa da Zuk garbi ulertzea, adieraztea eta adostea, Eskuratutako zerbitzua Hirugarrenen zerbitzu bat dela eta/edo horrek Facebook-ek eta/edo hirugarrenek emandako Hirugarren baten edukirako sarbidea ematen duela, zeinetatik inor ez dagoen RIMen kontrolpean. Norekin ari zaren egiaztatu beharko zenuke eta aplikatu daitezkeen baldintza guztiak zein diren jakin beharko zenituzke; baita, baina horretara bakarrik mugatu gabe, ordainketa-baldintzak, pribatutasun-baldintzak, pribatutasun-ezarpenak eta segurtasun-funtzioak ere zein diren, zure informazio pribatua babesteko eta zure segurtasun pertsonala bermatzeko. Zure Eskuko produktuaren Bezeroaren softwarea Eskuratutako zerbitzura sartzeko eta berori erabiltzeko: (a) Eskuratutako zerbitzuko kontua eguneratua eta aktibo izan behar duzu; Zerbitzuaren kontua Eskuratutako zerbitzuarekin adostu dituzun arauak eta baldintzek zuzenduko dute; (b) Zure Konexio zerbitzariaren hornitzaileak zure Eskuko produktuaren bidez Eskuratutako zerbitzura konektatzen utzi behar dizu; eta (c) Bezero Softwareak zure Eskuko produktuaren BlackBerry-ren Eskuko softwarean funtzionatzeko moduan egon behar du.

Softwarearen bezeroa BlackBerry-ren Eskuko softwarea da, halaxe definituta baitago RIMen BlackBerry Soluzioaren Lizentzia Akordioan (lehen BlackBerry Softwarearen Lizentzia Akordioa izena zuena) (“BBSLA”) Zure jurisdikziorako, eta RIMek baimena ematen dizu hura BBSLAri jarraiki erabiltzeko, jarraian osagarri gisa gehitu diren baldintza gehigarrietan (“Baldintza gehigarriak”) adierazi bezala. Dagoeneko Zure BlackBerry Soluzioa erabiltzeko BBSLAren baldintzak onartu badituzu (BBSLA definitu moduan), orduan, BEHEAN AGERTZEN DEN “ONARTZEN DUT” AUKERA SAKATUZ, ONARTZEN DUZU BALDINTZA ETA ZEHAZTAPEN BERBERAK AUTOMATIKOKI APLIKATUKO ZAIZKIZULA, BALDINTZA GEHIGARRIEKIN BATERA, SOFTWARE BEZERO HAU ERABILTZEN DUZUNEAN. ORAINDIK BBSLA ONARTU EZ BADUZU, BEHEAN AGERTZEN DEN “ONARTZEN DUT” SAKATUZ, ONARTZEN DUZU BBSLA ETA BALDINTZA OSAGARRIAK BETEKO DITUZULA SOFTWARE BEZEROA ERABILTZERAKOAN. ERA BEREAN, ZURE BLACKBERRY SOLUZIOAREN ZATI DIREN SOFTWARE GUZTIEN BALDINTZAK BERBERAK DIRELA BERMATZEKO, ONARTZEN DUZU, BEHEAN AGERTZEN DEN “ONARTZEN DUT” SAKATZEN DUZUN DATATIK AURRERA, BBSLA AKORDIOA ZURE BLACKBERRY SOLUZIOAREN BESTE ASPEKTU GUZTIETAN ERE APLIKAGARRIA DELA, ETA HORREK AURRETIK EGONDAKO BLACKBERRY SOFTWAREEN LIZENTZIA-AKORDIO GUZTIAK ORDEZTEN DITUELA, AKORDIO HORIEK BESTELA APLIKAGARRIAK DIREN HEINEAN.

AZKEN BBSLA ERRAZ ESKURATZEKO MODURIK EZ BADUZU, WWW.BLACKBERRY.COM/LEGAL HELBIDEAN AURKI DEZAKEZU, EDO RIM-EKIN LEGALINFO@RIM.COM HELBIDEAN HARREMANETAN JARRITA ERE ESKURA DEZAKEZU.

BALDINTZA GEHIGARRIAK

Honako hau onartu eta adosten duzu:

- BBSLAren informazioa Biltzeko Baieztapenaren hornitzeak, baita hemen aipatutako RIMen pribatutasun-politika aplikatzeak ere (Helbide honetan ere eskura daiteke: <http://www.blackberry.com/legal/privacy.shtml> edo mezu elektronikoko bidez eska daiteke legalinfo@rim.com helbidera (“Pribatutasun-politika”), Bezeroaren softwarea erabiliz RIM-ek informazio pertsonala biltzeari, erabiltzeari edo argitaratzeari eragiten dio. Europako Ekonomia Erkidegoko biztanlea bazara, onartzen duzu RIM-ek bildutako informazio pertsonala Europako Ekonomia Erkidegotik kanpo transferitzea RIM-ek prozesua dezan edo RIM-ek edo bere afiliatuek edo beren izenean operatutako hirugarrenen zerbitzu-hornitzaileek Kanadan, Estatu Batuetan edo RIM-ek edo bere enpresa edo zerbitzu-hornitzaile afiliatuek edo beren izenean operatutako instalazioak dauden beste herrialde batean.
- Bezeroaren softwarea erabiliz gero, baliteke autentifikazio tokena edo kredentzialak biltzea eta biltegitratzea eskatzea, Eskuratutako zerbitzurako Zure sarrera errazte aldera. Eskuratutako zerbitzua erabiltzen duzunean, baliteke Hirugarrenen zerbitzuek, Facebook-ek esaterako, Zure gailuko informazio pertsonala atzitzea eta baliteke RIMen kontrolpean ez dauden beste Hirugarrenen zerbitzu batzuei jakinaraztea. Adibidez, kontaktu-zerrendaren sinkronizazioa eginbidea gaituta, baliteke aldizka zure gailuko kontaktuen kopia bat Facebook-era bidaltzea, Eskuratutako zerbitzuaren bidez eskain daitezkeen eginbideentzako. Baliteke profileko argazkiak eta Zuri eta Zure Facebook lagunei buruzko informazioa ere aldizka Facebook-etik Zure gailuko kontaktu-zerrendara eta Egutegira bidaltzea eta jakitun zara datu horien atzipena (adibidez, aplikazioen aldetik) ez dela une horretatik aurrera Zure eta Zure Facebook-eko lagunen pribatutasun-ezarpenen menpe egongo, Zure gailuan gorde ostean.

Onartzen dut

Ez dut onartzen